

## [Eusk/Cast] Askapena ante el golpe de Estado en Bolivia

ASKAPENA :: 12/11/2019

Finalmente se ha consumado el golpe de Estado contra el gobierno de Evo Morales. Es necesario indicar que dicho golpe venía gestándose desde antes de las elecciones del 20-10

## [Euskara]

## Askapenaren komunikatua Boliviako Estatu kolpearen aurrean

Azkenik, Evo Moralesen gobernuaren aurkako Estatu kolpea gauzatu da. Esan behar da kolpe hau 2019ko urriaren 20ko hauteskundeak baino lehen eratzen ari zela. Santa Cruzen bere oinarri nagusia daukan Boliviako oligarkiaren eta inperialismo yankiaren saiakeren emaitza da kolpe hau; historikoki gutxietsita eta baztertuta izan diren sektoreen alde (nagusiki jatorrizko herriak eta nekazari eta langile apalak) aldaketa garrantzitsuak egin dituen gobernuaren aurkako kolpea, hain zuzen ere. Baliabide naturalen ustiatzearen kontrola eta lortutako etekinak pobrezia gutxitzeko eta herriaren beharrak asetzeko erabiltzea ez dira bateragarriak kapitalismoak etekinaren maximizazioarekin, herrien, pertsonen eta naturaren gainetik. Horregatik, herriaren alde gobernatzeagatik, elite ekonomikoen eta Washingtonen aginduak ez betetzeagatik, eredu alternatibo bat eraikitzen saiatzeagatik, Bolivia gobernatzera ohituta zegoen burgesia zuriaren arrazismoaren aurrean jatorrizko presidente bat izateagatik ("indio" bat, supremazista boliviartarrek mespretxuz deitzen dutenen moduan), Boliviako prozesu eraldatzailea suntsitzea beren lehenetasuna zen. Saiatu ziren La Paz-eko gobernua higatzen eta kentzen 2007 eta 2008an Santa Cruzetik antolatutako erasoaldiarekin, izaera arrazista eta erreakzionarioa duten mugimendu sezesionisten bidez. Ez zuten orduan lortu baina osteko hamarkadan, era diskretoagoan, jarraitu dute lanean helburu berarekin. Urriko hauteskundeak ziren gobernua botatzeko momentua, botoen bidez ala indarkeriaren bidez. Hauteskundeak baino lehen Carlos Mesak eta eskuinaren beste buruzagi batzuek esan zuten iruzurra egongo zela. Hauteskundeen behin betiko emaitzak ezagunak izan baino lehen Mesak iragarri zuen bigarren buelta egongo zela; iruzurraren ekuzazioa eta kanpaina desegonkortzailea martxan jarri baino ordu batzuk lehenago. Hauteskunde tribunal gorenaren akats batzuk eta zenbaketaren kudeaketa oso txarrak eskuinari bidea erraztu zion, bera bakarrik bigarren bueltara joatea onartzeko prest zegoelarik.

Oligarkiaren ofentsiba intentsifikatu da baita biolentoago bilakatu, batez ere ultraeskuineko sektoreen parte-hartzeagatik, Comité Pro Santa Cruz-eko buruzagiak, Luis Fernando Camachok gidatuta. Hasiera batean emaitzak aztertzeko OEA eskuhartzea eskatzen zuten. Gobernuak, inperialismo yankiak historikoki kontrolatutako erakunde honen auditoria loteslea onartu zuenean, eskuinak errefusatu egin zuen. OEAren batzordeak irregulartasunak detektatu zituela jakinarazi ostean Gobernuak Hauteskunde Tribunal Gorena aldatzea eta hauteskunde berrietara deitzea iragarri izana, ez zen nahikoa izan. Evo eta Alvaro García Lineraren burua eskatzen zuten. Gobernuaren elkarrizketa eta bakearen aldeko mezuei ezetz esan diete behin eta berriro. Gobernuaren amore emateak, ahultasun egoera nabari batetik, erreakzioa elikatu baino ez du egin. Boliviako kolpismoa, batez ere

sektorerik faxistenenak, boterea hartzea du jomugan. Haien asmoak ez dute zerikusirik demokraziarekin, baizik eta 2005ean galdu zuten boterea berreskuratzerarekin. Azken asteetan izandako eginkizuna progresiboki garatu den plan baten jarraipena da, non EEBBetako enbaxadaren eskua antzematen den. Ezer berririk. Poliziaren matxinada (lanaldarrikapenen osagai garrantzitsu batekin, gobernuaren ahultasunaz aprobetxatuz) eta, azkenik, Indar Armatuak kolpearekin lerrokatzeak kolpea atzeraezinezko bihurtu dute.

Eskuinmuturrak ez du arazorik izan indarkeria faxista erabiltzeko MASetik gertuko pertsona eta erakundeen kontra, etxebizitzak, egoitzak eta alkatetzak errez, baita gobernuaren aldeko komunikabideak erasotuz. Eta orain errebantxaren ordua heldu da, non gordetako gorrotoari bidea emango dioten. Gobernukide eta beren senitartekoen etxean indarrez sartzeak eta sua emateak, gobernukideen senitartekoen bahiketak, Venezuela eta Kubako embaxaden kontrako jazarpenak mugimendu honen benetako izaera faxista erakusten dute.

Nahiz eta hauteskundeak deitu, joko-arauak (hurrengo hauteskundeak barne) eskuinak markatuko ditu (La Paz – Santa Cruzetik, baita Washingtonetik ere) eta ez dute ahalbidetuko MAS, Evo-Alvarorekin edo beste hautagaiekin, berriro irabaztea.

Euskal internazionalistak garen heinean, Estatu kolpe hau gogorki salatzen dugu baita MASi lotutako pertsonak eta sektore sozialak jasotzen ari diren eraso faxistak, eta gainontzeko euskal eragile politiko eta sozialei eskatzen diegu kolpearen kontra publikoki agertzea.

Era berean, euskal jendartea gonbidatzen dugu kolpea salatzeko asmoz hurrengo egunetan garatuko ditugun ekimenetan parte hartzera.

Aitorpen eta elkartasun mezu bat bidali nahi diegu Evo Morales, Alvaro García Linera baita MAS eta erakunde politiko, sozial eta sindikalei, azken urte hauetan justizian eta herri apalaren protagonismoan aurrera egiteko egin duten borrokagatik. Kontziente gara, porrota gogorra izan bada ere, herrien askapenerako borrokak dirauela. Boliviako Estatu Plurinazionalean ere.

Inperio espainiarrez askatzeko matxinada mendean hartu ostean, 1781ean kolonizatzaile espainiarrek zatikatua izan baino lehen, Tupak Katariren hitzak gogoratu zituen Alvaro García Linerak bere kargu-uzte diskurtsoan: "bueltatuko gara eta milioiak izango gara".

Euskal Herria Boliviako herriarekin!

Jallalla Bolivia! (Gora Bolivia!)

Hamaika herri, borroka bakarra!

Euskal Herria, 2019ko azaroaren 11

[Castellano]

Comunicado de Askapena ante el golpe de Estado en Bolivia

Finalmente se ha consumado el golpe de Estado contra el gobierno de Evo Morales. Es necesario indicar que dicho golpe venía gestándose desde antes de las elecciones del 20 de octubre de este año. El golpe es la plasmación de los intentos por parte de la oligarquía boliviana que tiene su principal base en Santa Cruz y del imperialismo yanqui para derrocar a un gobierno que ha llevado a cabo importantes transformaciones a favor de los sectores históricamente olvidados y menospreciados de Bolivia, como los pueblos originarios y los sectores de campesinos y trabajadores más humildes. El control por parte del Estado de la explotación de los recursos naturales y la inversión de los beneficios obtenidos para disminuir la pobreza y atender las necesidades de la población no son compatibles con la lógica capitalista de maximización del beneficio por encima de pueblos, personas y de la naturaleza. Por eso, por gobernar para el pueblo, por desafiar a las élites económicas y a los dictados de Washington, por intentar construir un modelo alternativo, por ser un presidente originario (un "indio", como lo llaman despectivamente los supremacistas bolivianos) frente al racismo de una burguesía blanca acostumbra a gobernar Bolivia, abortar el proceso boliviano era una prioridad desde sus inicios. Lo intentaron en 2007 y 2008 con los movimientos secesionistas de naturaleza racista y reaccionaria que, desde Santa Cruz, buscaban desgastar y derrocar el gobierno de La Paz. No lo consiguieron entonces, pero la década transcurrida no ha sido sino un periodo durante el cual se ha continuado, de manera algo más discreta, trabajando con este propósito. Las elecciones de octubre debían ser el momento para derribar el gobierno, mediante los votos o mediante la violencia. Ya antes de las elecciones Carlos Mesa y otros dirigentes de la derecha hablaban de fraude. Ya antes de proclamarse los resultados electorales definitivos, Mesa anunció que habría segunda vuelta; horas antes de lanzar la acusación de fraude y la consiguiente campaña desestabilizadora. Diversos errores y una pésima gestión del recuento por parte del Tribunal Supremo Electoral facilitaron las cosas a una derecha que iba a desconocer los resultados si no daban paso a una segunda vuelta.

La ofensiva de la oligarquía ha ido intensificándose y volviéndose más violenta, especialmente por la participación de sectores ultraderechistas cuya cabeza visible es Luis Fernando Camacho, presidente del Comité Pro Santa Cruz. Inicialmente solicitaban la intervención de la OEA para comprobar los resultados electorales. Cuando el Gobierno acepto una auditoría vinculante de este organismo históricamente controlado por el imperialismo yangui, la derecha la rechazó. Cuando la OEA hizo público un informe que señalaba irregularidades en el proceso electoral y el gobierno boliviano aceptó renovar las y los miembros del Tribunal Supremo Electoral y convocar nuevas elecciones, tampoco ha sido suficiente. Pedían la cabeza de Evo y Alvaro García Linera. Los llamados al diálogo y a la paz por parte del gobierno han sido permanentemente rechazados. Las concesiones realizadas por el gobierno, desde una posición de debilidad evidente, no han hecho sino alimentar a la reacción. El golpismo boliviano, especialmente los sectores más fascistas, no se contentan con otra cosa que no sea tomar el poder. Nada tienen que ver sus intenciones con la democracia, sino con la recuperación del poder político que perdieron en 2005. Su accionar en las últimas semanas responde a un plan que se ha ido ejecutando de forma progresiva, y tras el cual se percibe de forma bastante evidente la participación de la Embajada de EEUU. Nada nuevo. El amotinamiento de la policía (con un fuerte componente de reivindicaciones laborales, aprovechando la debilidad del gobierno) y, finalmente, el alineamiento de las Fuerzas Armadas con el golpismo, han terminado por hacer irreversible el golpe.

La ultraderecha no ha dudado en utilizar la violencia fascista contra personas y organizaciones cercanas al MAS, quemando casas, sedes y alcaldías y atacando medios de comunicación pro-gubernamentales. Y ahora llega la hora de la revancha, en la que darán rienda suelta al odio acumulado. El allanamiento y quema de viviendas de miembros del gobiernos y familiares, el secuestro de familiares de cargos gubernamentales, el asedio a las embajadas de Venezuela y Cuba muestran la verdadera naturaleza fascista de este movimiento.

Al margen de que anuncien que convocarán elecciones, las reglas del juego (incluidas las de unas próximas elecciones) las marcará la derecha (desde La Paz-Santa Cruz y desde Washington) y no van a permitirse la posibilidad de que el MAS, con Evo-Alvaro o con cualquier otra/o candidata/o, pueda volver a ganar.

Como internacionalistas vascas/os denunciamos enérgicamente este golpe de Estado y las agresiones fascistas de que están siendo objeto personas ligadas al MAS y sus sectores sociales, y pedimos a los demás agentes políticos y sociales vascos a manifestarse públicamente en contra del mismo.

Asimismo, animamos al pueblo vasco a participar en las iniciativas que desarrollaremos en Euskal Herria los próximos días para denunciar el golpe.

También queremos transmitir un mensaje de reconocimiento y solidaridad a Evo Morales, Álvaro García Linera y demás compañeras/os del MAS y de los movimientos políticos, sociales y sindicales bolivianos que durante estos años han luchado para materializar la justicia y el protagonismo del pueblo humilde. Somos conscientes de que, a pesar de esta dura derrota, la lucha por la liberación de los pueblos sigue. También en el Estado Plurinacional de Bolivia.

Parafraseando a Tupak Katari antes de ser desmembrado por los colonizadores españoles en 1781 tras sofocar la revuelta en contra el yugo español, el propio Alvaro García Linera lo ha indicado en su discurso de dimisión: "volveremos y seremos millones".

iEuskal Herria con el Pueblo boliviano!

Jallalla Bolivia! (iViva Bolivia!)

iMuchos pueblos, una misma lucha!

Euskal Herria, 11 de noviembre de 2019

https://eh.lahaine.org/eusk-cast-askapena-ante-el